


JASANGARRITASUNAREN ESKOLA

INGURUMEN HEZIKETARAKO MUSEOA

NEGUA 2020





T. 948 149 804 / 948 42 09 84

www.educacionambiental.pamplona.es/eu

museoambiental@pamplona.es

 ingurumenhezuntza.museoa

 IHMuseoalruna

Goizez, asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

Arratsaldez, asteartetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara.

Errotazarko k., zk.g. - 31014 Iruña

Liburukia hau %100ko paper birziklatuan inprimatu da. Argitaratzailea: Iruñeko Udala. Disenua eta maketazioa: Doña Remedios. Inprimatzea: Europlan. DU/LG:2226-2017

EKONOMIA

ZIRKULARRA

Ekonomia hitzak latinezko **oekonomia** berban du jatorria, eta horren esanahia da etxe bat gobernatzea. Gure etxea den planeta gobernatzea, bestera, halako moduan non amaiera hasiera eta hasiera amaiera bihurtuko baitira. Aldaketa ñimiñoak egunerokoan, hondakinak eraldatu eta baliabide bilakatu daitezen, konponketa eta berrerabilera jardunbide bihurturik, helmuga bat lortzeko: murriztea. Jar ditzagun praktikan egiteko beste modu batzuk, pasa gaitezten lerro zuzenetik zirkularrera. Gooozen!



Aurkibide-Orria

Hitzaldi-solasaldiak

07-08

Lantegiak, ikastaroak
eta txangoak

09-18

Erakusketak

19

Merkatu txikiak

20-21

Museoa zeureganatu

22

Urtarrila

al.	as.	az.	og.	ol.	lr.	ig.
		1	2 Jostailuak trukatzeko merkatua	3 Jostailuak trukatzeko merkatua	4	5
6	7	8	9 Biziboko-konpondu zure bizikleta	10	11	12
13	14	15 Energía y autoconsumo	16	17	18	19
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
20	21 Jostintza-lantegia: zuk zeuk sortutako oihalezko poltsak EUSKARAZ	22 Konponketak egitea etxean	23 Jostintza-lantegia: zuk zeuk sortutako oihalezko poltsak GAZTELANIAZ	24	25	26
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
27	28 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	29 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	30 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	31 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua		
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er

S Solasaldiak **L** Lantegiak eta ikastaroak **M** Jostailuak trukatzeko merkatua

M Dirurik gabeko merkatua **Er** Erakusketa **M** Bizikletak trukatzeko merkatua

Otsaila

al.	as.	az.	og.	ol.	lr.	ig.
					1	2
					Er	Er
3	4 Paperezko antzerkia-Kamishibai GAZTELANIAZ	5 Dokumentala: "Fabricando mujeres"	6 Paperezko antzerkia-Kamishibai EUSKARA	7	8	9
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
10	11 Elkadura-lantegia "Hemen ez da ezer botatzen"	12 Fruta-arbolen inausketa	13 Biziboko-konpondu zure bizikleta	14	15	16
Er	Er *	Er *	Er	Er	Er	Er
17	18 Lantegia: kafe eta bizkotxo, zortziak arte nahikotxo	19	20 Jostailuak trukatzeko merkatua	21	22	23
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
24	25 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	26 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	27 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	28 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	29	
Er	Er	Er	Er	Er	Er	

S Solasaldiak **L** Lantegiak eta ikastaroak **M** Jostailuak trukatzeko merkatua

M Dirurik gabeko merkatua **Er** Erakusketa **M** Bizikletak trukatzeko merkatua

* Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Kontsultatu liburuxka

Martxoa

al.	as.	az.	og.	ol.	lr.	ig.
						1
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
2	3 Txertatze- lantegia	4 Etxean toxikorik gabe garbitzeko lantegia	5 Jostailuak trukatzeko merkatua	6	7	8
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
9	10 Merkatua: Bizikletak trukatzeko merkatua	11 Merkatua: Bizikletak trukatzeko merkatua	12 Merkatua: Bizikletak trukatzeko merkatua Bizitxoko- konpondu zure bizikleta	13 Merkatua: Bizikletak trukatzeko merkatua	14	15
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
16	17 Sendabelarrei Buruzko Ikastaroa ARRATSALDEZ	18 Sendabelarrei Buruzko Ikastaroa GOIZEZ	19	20	21	22
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er
23 30	24 31 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	25 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	26 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	27 Merkatua: Dirurik gabeko merkatua	28	29
Er	Er	Er	Er	Er	Er	Er

S Solasaldiak **L** Lantegiak eta ikastaroak **M** Jostailuak trukatzeko merkatua

M Dirurik gabeko merkatua **Er** Erakusketa **M** Bizikletak trukatzeko merkatua

HITZALDI-SOLASALDIAK

Hitzaldi-solasaldi guztiek sarrera librea dute eta ez da izena eman beharrik

¿PUEDO GENERAR MI PROPIA ENERGÍA RENOVABLE?
¿ES EL AUTOCONSUMO POSIBLE?



Javier Zardoya Illana

Urtarrilak 15, asteazkena. 19.00

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Egungo sistema elektrikoan aldaketa bortitzak gertatzen ari dira azken garaiotan: teknologia berriztagarri berriak, murriztutako kostuak, kontagailu digitalak... Horrek berekin dakar berriztagarrien ekoizpen banatuak gero eta aukera handiagoak edukitzea. Horrez gain, eragileen rola ere aldatzen ari dira, eta, hori horrela, kontsumitzaileak eragile aktiboak izatera igaroko dira, energia sortu, kontsumitu eta partekatzeko aukera izanen baitute.

Arratsalde honetako saioan aldaketa horiek guztiak aztertuko ditugu berri, ardatz harturik egungo araudiak autokontsumo elektriko berriztagarria garatzeko ematen dituen aukerak.

Javier Zardoya Illanak energia-sektorean egiten du lan duela 10 urte baino gehiagotik; aholkularitza-lanak eta proiektuak garatzekoak egin ditu, betiere energia eta gizarte-berrikuntzaren esparruei loturik. Duela ia urtebeteetik hona Iruñeko Udalaren Energia Operadorean dihardu lanean.

“FABRICANDO MUJERES” DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA ETA EZTABAIDA



Setem Nafarroa GKE

Otsailak 5, asteartea, 19.00

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

“Fabricando Mujeres” dokumentala Arropa garbia kanpainari loturik sortu da, sare horretan jantzigintza-industria globaleko langileen baldintzak hobetzeko lan egiten baita.

SETEM Hego Haizea-rako sorturik eta Al Borde Films-ek zuzendurik, hausnarketarako gonbita da, gogoeta egin dezagun ohiko kontsumoaren eta indarkeria matxisten artean dagoen loturaren gainean. Maitek (Itziar Aizpuru), protagonistak, Emakume-lantegiaren hondarrak biltzen jarraitzen du, horiekin eraiki nahi ditu-eta zenbait asmakizun eta proposamen eraldatzaile, indarkeria matxistarik gabeko kontsumoa sortuko dutenak. Emanaldiaren ostean gaiari buruzko gogoeta-eztabaida egingen da.

SETEM Nafarroak egiten duen lanak jomuga du gizartea kontzientziatzea ezberdintasunen gainean, horien arrazoiak salatzea eta gizartearen, norbanakoen eta taldeen eraldaketak sustatzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortze aldera.

LANTEGIAK, IKASTAROAK ETA TXANGOAK

SORTU SOLTEAN EROSTEKO ZEURE POLTSAK



Lantegi eta irteera guztiak doan dira. 16 urtetik gorakoendako dira, eta aurrez eman behar da izena.

Jessica Ansorena

Urtarrilak 21, asteartea. 18.00 – 20.00.

EUSKERAZ

Urtarrilak 23, osteguna. 18.00 – 20.00.

GAZTELANIAZ

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Modu arduratsuan kontsumitzeko modurik onenetako bat soltean erostea da, eta horretarako, erosketetara zeure poltsak eramatea baino hoberik ez dago. Lantegi honetan hainbat neurritako oihalezko poltsak egiten ikasiko dugu. Ikusiko dugu zer material mota berrerabili ditzakegun geure poltsak sortzeko, eta zeintzuk diren egokienak erosi behar dugunaren arabera.

Jessica Ansorena bere kabuz ikasten ari da nola igaro bizimodu jasangarriagoetara. Askotariko ikastaroak ematen ditu bizitzaren jasangarritasunari lotuta.

Izen-ematea, aurrez

Urtarrilaren 7tik aurrera

010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

KONPONKETAK EGITEA ETXEAN



Juanjo Iriarte

Urtarrilak 22, asteazkena, 18.00 – 20.00.

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Konponketa da bidea hala hondakin gutxiago sortzeko nola etxetresna elektrikoen bizitza luzatzeko. Lantegi honetan Juanjoren eskutik ikasiko dugu nola egin oinarritzko konponketa praktiko batzuk etxeko mantentze-lanak egunean-egunean izateko: elektrizitatea, brikolaje apur bat eta iturgintzako zenbait kontu.


Juanjo Iriarte konponketetan aditua da.

Izen-ematea, aurrez

Urtarrilaren 7tik aurrera

010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

FAMILIAN EGITEKO LANTEGIA: “LU SUZHUREN AMETSA” KAMISHIBAIA-PAPEREZKO ANTZERKIA ETA ZEURE TRAPUZKO PANPINA EGITEKO LANTEGIA



Setem Nafarroa GKE

Otsailak 6, asteartea, 18.00 – 19.30.

GAZTELANIAZ

Otsailak 8, osteguna, 18.00 – 19.30.

EUSKARAZ

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bazen behin Lu Shzu, jostailu-lantegi batean lan egiten zuen neskato dagonmeia...

Horrelaxe hasten da kamishibaia, zeinaren bidez neska-mutilek aukera izanzen baitute haur-langileek bizi duten errealitatara hurbiltzeko, gertuko zaien errealitate bat abiapuntu: jostailuak. Haurrendako Lu Shzuren ametsa liburuaren egokitzapen bat da, hura Kamishibai (“paperezko antzerki”) teknika japoniarrera ekartzen duena. Jarduera osatzeko trapuzko panpina bat egiteko lantegia egingen da.

Lantegi hau **SETEM Nafarroak** prestatu du, haurren lan-esplotazioari buruzko Arropa garbia kanpaina-proiektuaren barruan, xede harturik gizartea kontzientzia ezberdintasunen gainean, horien arrazoiak salatzea eta gizartearen, norbanakoen eta taldeen eraldaketak sustatzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortze aldera.

Izen-ematea, aurrez. Urtarrilaren 13tik aurrera.

010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

Nori Zuzendua: 4 eta 10 urte bitartekoei, helduek lagunduta.

ELIKADURA-LANTEGIA “HEMEN EZ DA EZER BOTATZEN: APROBETXAMENDUZKO SUKALDARITZA”



Geltokiko sukalde-langileak

Otsailak 11, asteartea, 18.00 – 20.00.

LEKUA Geltoki (autobus-geltoki zaharra)

Kozinatzean erabiltzen ditugun produktuei etekinik handiena ateratzea artea ez ezik aurrezteko eta xahutzea ekiditeko modu bikaina ere bada. Premisa hori lan-filosofia bihurtu duela urtebete baino gehiagotik **geltokiSUKALDEAn**, eta funtsean, estrategia eta plangintzako kontu bat da. Sukaldeko langileen eskutik jasoko ditugu oinarritzko trikimailu batzuk bota ohi ditugun osagaiez plater eta elaborazio bikainak sortu ahal izateko.

Izen-ematea, aurrez. Urtarrilaren 20tik aurrera
010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).
Nori zuzendua: jendeari, oro har.

FRUTA-ARBOLA HAZIDUNAK-SAGARRONDOA ETA UDAREONDOA-INAUSTEKO LANTEGIA



Joseba Etxarte

Otsailak 12, asteazkena, 16.00 – 18.00.

LEKUA Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratua (Atarrabiako etorbidea, 55)

Negua da gure fruta-arbolak inauzteko garaia. Lantegi honetan fruta-arbola hazidunak mantzentzeko inauketaren funtsezko oinarriak landuko dira, eta praktikan jarriko.

Joseba Etxarte inauztaria da, eta lantegia emateko arduraduna.

Izen-ematea, aurrez. Urtarrilaren 20tik aurrera
010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

KAFE ETA BIZKOTXO, MUSEOAN ZORTZIAK ARTE NAHIKOTXO



Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako lantaldea

Otsailak 18, asteartea, 18.00 – 20.00.

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Askari sorpresaduna. Askari honen mahai-zapia gure hiria izanen da, eta haren gainean ahogozatuko ditugu osagai guztiak. Lantegi honetan askari jasagarri batez gozatuko gara, hiriari buruz mintzatu bitartean.

Izen-ematea, aurrez

Urtarrilaren 27tik aurrera

010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

Nori zuzendua: jendeari, oro har.

LANDARE-UGALKETARI BURUZKO LANTEGIA: TXERTOAK, ALDAXKAK ETA HAZITEGIAK



Juanma Artazkoz eta Fulgen Sutil Lona

Martxoak 3, asteartea 17.00 – 20.00.

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Saio honetan ezagutzera emanen dira landareen ugalketa sexual eta asexualaren mota nagusiak, eta horiek praktikatuko dira.

Juanma Artazkoz eta Fulgen Sutil Lona nekazaritza-ingeniari teknikoak eta paisajistak dira. Viveros Sustrai mintegian egiten dute lan.

Izen-ematea, aurrez

Otsailaren 10etik aurrera

010 telefonoan edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

ETXEAN TOXIKORIK GABE GARBITZEKO LANTEGIA



Maite Palacios

Martxoak 4, asteazkena 18.00 – 20.00.

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Toxikoak etxean? Lantegi honen bidez aztertuko dugu etxean non dauden toxikoak eta zer nolako eragina duten gugan.

Ikusiko dugu posible dela gure osasunari eta planetari kalterik egiten ez dioten garbiketa-produktuak erabiltzea, eta hori horrela, erabilera anitzeko garbiketa-produktu bat eta aire-gozagarri bat egiten ditugu.

Maite Palacios nekazaritza-ingeniarria da, eta sendabelarretan espezializatu da. Eskarmentu handia dauka esparru horretako ikastaroak eta lantegiak ematen.

Izen-ematea, aurrez. Otsailaren 10etik aurrera
010 telefonon edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).

INGURUKO SENDABELARREI BURUZKO IKASTAROA



Josean Vidaurre

Martxoak 17, asteartea, 18.00 – 20.00. **ARRATSALDEZ**

Martxoak 18, asteazkena, 10.30 – 12.30. **GOIZEZ**

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bi lantegietan txango labur bat eginen da inguruetara, gertuko ingurumarietan aurki ditzakegun landareak ezagutzeko. Gero, ikasgelara itzulitakoan, horien ezaugarri sendagarri eta erabilera terapeutikoak hartuko dira hizpide, eta zalan-tza guztiei erantzunen zaie.

Josean Vidaurre nutrizionista eta fitoterapiari aditua da.

Izen-ematea, aurrez

Otsailaren 24tik aurrera
010 telefonon edo 948 42 01 00an (Iruñeaz kanpotik deituz gero).



Juanjo Iriarte, konponketetan aditua.

Ostegun bat hilean.

Urtarrilak 9, otsailak 13 eta martxoak 12, 18.00.-20.00.

EUSKARA **GAZTELANIAZ**

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzeko eta gure bizikleta doitzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean ongi pasatzeko sortu da gune hau. Horretarako, konponketetan aditua den Juanjo Iriarte izanen da bertan, eta Bizitxokora doazen lagunei laguntza eta aholkuak emanen dizkie.

Sarrera librea. Ez da izena eman behar.

GUTUN-EKO SISTEMAK

Iruña: hiria ekosistema gisara egonaldi artistikoa hautatutako proiektua



Maidar Garayo, Paula Torán eta Nahia Villanueva

Urtarrilak 13 - Martxoak 31

LEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Herritarrei Gutun-EKO sistemak proiektu artistikoa parte hartzeko deia egin eta gauza berdingabeak bildu dira, gure hiriarri erreferentzia eginen diotenak ekosistema gisara. Pieza horiek hartu-emanetan daude Maidar Garayok, Paula Toránek eta Nahia Villanuevak Uharteko Arte Garaikidearen Museoa eta Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak bultzatutako egonaldi artistikoa bi hilabetetan zehar ondu duten testuinguruarekin.

Nola bizi gara, nola sentitzen dugu eta nolako harremanak ditugu gure ingurunearekin? Proiektuaren helburua da jardun artistikoaren alderdi ikertzailea testuinguru jakin batean arakatzea, Iruñeko ekosistema kasu, eta horrela, harreman berriak eraikitzea sormen-prozesu ezberdinen artean. Analogia bisual, testual eta objektualen bidez egin dute; horixe dira, hain zuzen, jasotako eta erakusketa honetan ikusgai paratu diren olerki, testu, gauza eta tramankuluak.

DIRURIK GABEKO TRUKE-MERKATUA



Hilabete bakoitzeko azken astean egiten da (salbu eta azken astean jaiegunik dagoenean, halakoetan aurreko astean egiten baita)

Urtarrila: 28-31

Otsaila: 25-28

Martxoa: 24-27

Erostearen ordeztzat bat eskaintzen da, berrerabilpena sustatuz. Horrela ingurumena zaintzen laguntzen da, lehengaiak eta energia aurrezten direlako.

Merkatuan denetarik aurki daiteke: arropa, zapatak, beira-aleak, liburuak, jostailuak, etab. Parte-hartzaileek egoera onean eduki baina erabiltzen ez dituzten gauzak ekartzen dituzte, besteendako interesgarriak izan direlakoan. **Aste bakoitzean lau gauza** trukatu ditzakete gehienez ere, betiere antzeko balioa duten objektuengatik. Trukea Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak gainbegiratu du, era orekatuan eta ordenatuan egiten dela bermatzeko.

JOSTAILUAK ELKAR TRUKATZEKO MERKATUA



Merkatua haurrei bakarrik dago zuzenduta, euren familiekin etorri behar direnak.

Hilabetean behin egiten da, ostegunean, 18etatik 19etara.

Urtarrilak 2 eta 3

Otsailak 20

Martxoak 12

Merkatu hauen xedea da jostailuen trukea sustatzea, eta horrela, berrerabiltzea bultzatzea, kontsumo-alternatiba bat eskaintzea eta jostailuen bizitza luzatzea.

Haurrek dagoeneko erabiltzen ez dituzten jostailuak ekartzen dituzte, betiere egoera onean badaude -edozer jolas, liburu, ipuin, puzzle eta abar izan daiteke-; eta horiek trukatzeko ahaliko dituzte beste neska-mutil batzuek eramandako objektuengatik. Haurrek, beren familiekin batera, beraiek erabakiko dute nola egin trukea; hala ere, Ingurumen Hezkuntzako taldea arduratuko da txikiak zeregin horretan dinamizatu eta gidatzeaz.

BIZIKLETAK TRUKATZEKO MERKATUA



Martxoaren 10etik 13ra egiten da, Museoaren ordutegian, hots, asteartetik ostiralera 10etatik 13etara eta asteartetik ostegunera 18etatik 20etara.

Merkatuaren xedea da toki bat eskaintzea bertan trukatu daitezkeen egoera onean egonik dagoeneko erabiltzen ez diren bizikletak. Horretarako, bizikletaren aurretiazko balorazioa egiten da, eta hori horrela, balio bereko bizikletengatik baino ezin izan diren trukatu. Haurren bizikleten kasuan, neurri bat handiagoa den bizikletengatik soilik trukatzeko ahaliko dira. Edonola ere, bizikletaren egoerak baliokidea izan beharko du.

Bizikleta bat trukatzeko ahaliko da pertsona eta aste bakoitzeko.

Trukea Iru Ziklo mikrokooperatibak dinamizatuko du, hura izan diren baita trukea gainbegiratu eta onartzeko arduradun.

MUSEOA ZEUREGANATU

Museoak bozgorailu gisa jokatu nahi du eta elkartetan, ikastetxeetan, etabar egiten diren ingurumen eta gizarte-proiektuak zabaldu. Horretarako, bertako instalazioak eta hedapen-bideak erabiltzeko aukera ematen du unean uneko ekimen, lan, erakusketa eta abarrendako. Hitzaldi aretoa, bilera gelak eta erakusketa espazioa zuen esku daukagu.

museoeducacionambiental@pamplona.es

